

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

4.788

588/2002 ERABAKIA, uztailaren 16ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bitartez, behin betiko onartu da Asparrena-Donemiliagako industria sektoreko Alorreko Plana.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuak 2002ko apirilaren 19an emandako 290/2002 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onartu zen Asparrena-Donemiliagako industria sektoreko Alorreko Plana. Era berean, onarpen hori hogeita hamar egunez jendaurrean izatea erabaki zen; halaxe egin da, iragarkiak argitaratuta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (52. zenbakia, 2002ko maiatzaren 10ekoa) eta El Correo aldizkarian (egun berekoa).

Bigarrena.- Aldi horretan, bi alegazio aurkeztu dira, Asparrenako eta Donemiliagako udalek sinatuta. Araba Garapen Agentzia akzio-kako baltzuek alegazio horiei buruzko txostena egin du.

Orobat, Araba Garapen Agentziak jarduketa sistema alda dezala eskatu dio Arabako Foru Aldundiari: konpentsazioko jarduketa sistemaren ordeztu, kooperaziokoa erabil dadila. Aldaketa horren aldeko irizpena eman dute Asparrenako eta Donemiliagako udalek.

Hirugarrena.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuak 2002ko uztailaren 11n emandako 629/2002 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onartu zen alorreko planaren espedienteak, aurkeztutako alegazioak ezetsita eta jarduketa sistema aldatuta.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuari dagokio bi udalerriri eragiten dieten planak behin-behineko onartzea. Izan ere, halaxe dago araututa Diputatuen Kontseiluak 1997ko urriaren 7an onetsitako 89/1997 Foru Dekretuko 4. eta 5. artikuluetan, eta diputatu nagusiak 1999ko uztailaren 28an onetsitako 149/1999 Foru Dekretuan.

Bigarrena.- Alorreko plan hau egin da, sektore bakar jarraitua eratzten duten Asparrenako eta Donemiliagako udalerrietako industria lur hiritargarriak xehetasunez antolatzea.

Planeko dokumentuak aztertuta, egiaztatu dugu jaso dituela Hirigintza Plangintzako Arautegiko 43. artikulutik 63.era bitartekoetan adierazitako zehaztapenak eta dokumentuak.

Era berean, planak betetzen ditu eragindako bi udalerrietan indarrean diren hiri antolamenduko arauak.

Beraz, Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Asparrena-Donemiliagako industria sektoreko Alorreko Plana. Bi jardun unitateren bidez gauzatuko da: A zonarako jardun unitate bat, eta B zonarako beste bat.

Bigarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, onetsitako hirigintza arauarekin batera.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpen hori behin betikoa da administrazio bidean, eta horren aurka interesdunak ondorengo errekurtsio-etako edozein aurkez dezake (interesdunak, gainera, egoki deritzon beste edozein neurri har dezake):

a) Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, zuzenean. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan aurkeztu behar da. Horretarako bi hilabeteko epea dago, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

b) Nahi izanez gero, errekurtsio horren aurretik, interesdunak berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio, edo beste Administrazio batzuek errekerimendua aurkeztu ahal izango diote, ebazpena eman zuen organoari. Hilabeteko epea izango da horretarako, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

4.788

ACUERDO 588/2002, del Consejo de Diputados de 16 de julio, que aprueba definitivamente el Plan Parcial del sector industrial de Aspárrena-San Millán.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral número 290/2002, de 19 de abril, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, se aprobó inicialmente el expediente de Plan Parcial del sector industrial de Aspárrena-San Millán, ordenándose la apertura de un periodo de información pública durante el plazo de treinta días que se ha hecho efectivo mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 52, de 10 de mayo de 2002 y en el periódico El Correo del mismo día.

Segundo.- Durante dicho periodo se han presentado dos alegaciones suscritas por los Ayuntamientos de Aspárrena y San Millán, habiendo sido informadas las mismas por Álava Agencia de Desarrollo, S.A.

Así mismo la citada Agencia ha solicitado a la Diputación Foral de Álava el cambio de sistema de actuación, pasando del de compensación a cooperación. Dicho cambio ha sido informado favorablemente por los Ayuntamiento de Aspárrena y San Millán.

Tercero.- Mediante Orden número 629/2002, de 11 de julio, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, se aprobó provisionalmente el expediente de Plan Parcial, con desestimación de las alegaciones presentadas y modificación del sistema de actuación.

FUNDAMENTOS

Primero.- De conformidad con lo dispuesto en los artículos 4 y 5 del Decreto Foral 89/1997 del Consejo de Diputados, de 7 de octubre, y Decreto Foral del Diputado General número 149/199, de 28 de julio, la aprobación provisional de las Planes que afecten a dos municipios corresponde al Diputado de Obras Públicas y Urbanismo.

Segundo.- El presente Plan Parcial se redacta para ordenar por-nomerizadamente los suelos urbanizables industriales de los municipios de Aspárrena y San Millán que conforman un sector único discontinuo.

Analizada la documentación del Plan, se comprueba que contiene las determinaciones y documentos señalados en los artículos 43 a 63 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Asimismo, el Plan cumple las prescripciones establecidos en las Normas Subsidiarias vigentes de los dos municipios afectados.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del sector industrial de Aspárrena-San Millán, que se realizará mediante dos unidades de ejecución, una para la zona A y otra para la zona B.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, junto con la normativa urbanística aprobada.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria/Gasteiz, 2002ko uztailaren 16a.- Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.- Herrrian eta Hirigintza Saileko diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

1. KAPITULUA. OHAR OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazioko lurralde eremua.

Asparrena-Donemiliagako Industrialdeko Alorreko Planeko ordentzek Lurraren Legean jasotako arauak betetzen dituzte, eta onartzen diren une beretik indarrean izango dira industrialde osoan.

2. artikulua. Edukia

Ordenantza hauetan lurrekin lotutako hainbat gai definitzen da, besteak beste, erabilera, eraikuntza, helburua, estetika eta osasun baldintzak..., bai eraikinen aldetik, bai planeko antolamenduan dauden gainerako elementuen aldetik.

3. artikulua. Nahitaezkotasuna

Ordenantza honetako artikulua nahitaez aplikatu beharko dira industrialdearen barruan egiten diren lan guztietan, bai eta industrialdeko industria instalazioetako funtzionamenduan ere.

4. artikulua. Kudeaketa sistema

Alorreko plana kooperazio sistemaren bidez egingo da, Lurraren Legean arautu bezala.

5. artikulua. Edukia eta indarraldia

Ordenantza hauen zati dira Alorreko Planaren proiektuan idatzitako plano eta dokumentu guztiak. Indarrean egongo dira Hiri Antolamenduko Arauetako gainerako hirigintzako arauak, eta ordenantza hauek ere aplikagarriak izango dira.

Nahitaez bete beharko dira Hirigintza eta Eraikuntza arloan indarrean dauden arau guztiak, bai eta etorkizunean onartuko direnak. Arau horien artean daude igogailuei buruzko arauak, instalazio elektrikoiei buruzkoak, eta abar.

Alorreko plan hau behin betiko onartzen den unetik aurrera, indarrean izango dira ordenantza hauek. Eta indarrean jarraituko dute, harik eta hiri antolamenduko udal arauak berraztertu arte edo hiri antolamenduko beste arau batzuk egin arte.

6. artikulua. Obra baimenak eta hirigintza ikuskapenak

Industrialdean edozein obra egiteko lur saila dagoen tokiko Udalaren baimena beharko da. Industrialdearen barruan egiten den edozein lanetarako, obra baimena beharko da, ordenantza hauei eta Donemiliagako eta Asparrenako udalerrietan indarrean diren hirigintzako araei jarraituz, eta Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legean (1992ko ekainekoak) xedatutakoarekin bat.

Obra egiteko baimena ematea.- Udalek baimenak eman ahal izango dituzte, baldin arau hauetan eta hiri antolamenduko arauetan agindutakoa betetzen bada.

7. artikulua. Araugintzako dokumentuak

1.- Araugintzako dokumentuak honakoak izango dira: O-1 antolamendu plano eta ordenantza erregulatuak.. O-2, O-3, O-4, O-5 eta O-6 planoak laguntza emateko balio dute, eta ordenantzen arabera garatzen dira.

2.- Azalaren zenbakia benetako balioarena izango da. Benetako balioa lur sailean bertan neurtuko da, eta modu fede-emailan egiaztatuko.

2. KAPITULUA. LURRAREN HIRIGINTZAKO ARAUBIDEA

1. sekzioa. Lurraren kalifikazioa

8. artikulua. Kalifikazio orokorra

Lurraren kalifikazio orokorra udalerrri bakoitzeko hiri antolamenduko arauetan dago ezarrita. Kategoria hau hartzen du bere baitan: industria erabilerako lur eremu hiritargarria.

9. artikulua. Kalifikazio xehekatua

1.- Lurraren kalifikazio xehekatua antolamenduko O-1 planoan adierazita dago.

2.- Kalifikazioko kategoriak honakoak dira:.

A. Zona eraikigarriak:

A.1. Industria erabilerako zona

A.2. Ekipamenduen zonak

A.3. Oinarritzko azpiegiturak

B. Zona ez eraikigarriak:

Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

CAPÍTULO 1º GENERALIDADES

Artículo 1. Ámbito Territorial de Aplicación

Las Ordenanzas del Plan Parcial del Polígono Industrial de Aspárrena – San Millán desarrollan las normas urbanísticas contenidas en la Ley del Suelo, y regirán en toda la extensión del Polígono desde el momento de su aprobación.

Artículo 2. Contenido

Se define en las presentes Ordenanzas, todo cuanto afecta a los terrenos en orden a su uso, edificación, destino, condiciones estéticas y sanitarias, tanto de la construcción como de los elementos naturales que figuran en la ordenación del presente Plan.

Artículo 3. Obligatoriedad

Los diversos artículos de las presentes Ordenanzas, deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las obras que se realicen en el interior del Polígono, así como al funcionamiento de las instalaciones industriales que en él se ubiquen.

Artículo 4. Sistema de Gestión

El desarrollo de este Plan Parcial se hará por el sistema de cooperación, tal y como se previene en la Ley del Suelo.

Artículo 5. Contenido y Vigencia

Todos los "Planos y Documentos escritos" del Proyecto de Plan Parcial forman parte de las presentes Ordenanzas. Las demás Normas Urbanísticas contenidas en las Normas Subsidiarias de Planeamiento se mantienen vigentes, y serán de aplicación, además, las presentes Ordenanzas.

Serán de cumplimiento obligatorio todos los reglamentos en vigor referentes a materia de Urbanismo y Construcción, así como los que se promulguen en el futuro. Entre estos Reglamentos, están los de aparatos elevadores, de instalaciones eléctricas, etc.

La fecha de entrada en vigor, de las presentes Ordenanzas será la de aprobación definitiva del presente Plan Parcial, y su vigencia se mantendrá hasta la revisión de las Normas Subsidiarias Municipales, o la redacción de otras nuevas.

Artículo 6. Permisos de Obras e Inspecciones Urbanísticas

Para ejecutar cualquier obra dentro de esta Zona Industrial se precisará un permiso que se solicitará al Ayuntamiento en cuyo término se ubica la parcela. Serán objeto de licencia de obra, conforme a estas Ordenanzas y Normas Urbanísticas vigentes en los municipios de San Millán y Aspárrena, todas aquellas que se realicen en el interior del Polígono, según lo dispuesto en la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana de junio de 1992.

Autorización de obras.- Los Ayuntamientos podrán conceder licencias de obras siempre que se cumpla lo prescrito por estas Normas y en las correspondientes Normas Subsidiarias.

Artículo 7. Documentos Normativos

1.- Son documentos normativos, el plano de ordenación O-1, y las Ordenanzas Reguladoras. Los planos O-2, O-3, O-4, O-5 y O-6, tienen carácter orientativo y se desarrollan de acuerdo a las ordenanzas.

2.- La cuantificación de las superficies esta supeditado al valor real, tomado directamente en campo y comprobado de forma fehaciente.

CAPÍTULO 2º RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

Sección 1º Calificación del suelo

Artículo 8. Calificación Global

La Calificación Global del suelo se establece en las respectivas Normas Subsidiarias Municipales. Comprende la siguiente categoría; Suelo apto para urbanizar de uso industrial

Artículo 9. Calificación Pormenorizada

1.- La Calificación Pormenorizada del suelo se expresa en el plano O-1 de ordenación.

2.- Las categorías de la calificación quedan establecidas en;

A. Zonas Edificables:

A.1. Zona de uso industrial

A.2. Zonas equipamientos

A.3. Infraestructuras básicas

B. Zonas No Edificables:

- B.1. Berdeguneak
- B.2. Bide sistema
- B.3. Ur-lasterrak

Kategoria horiek guztiak antolamenduko O-1 planoan azaltzen dira mugatuta.

10. artikulua. Industria erabilerako zonan baimendutako erabilerak

Kokagunea, komunikazioak eta hurbileko erreserbak kontuan hartuta, lehentasuna emango zaio industrialdean honako sektore hauetako industriak ezartzeari:

- Industria sektorekoak, ondorengo hauek izan ezik: industria kimikoak, kutsadura indize handiak dakartenak, osasungaitzak direnak eta arriskutsuak direnak.
- Garaje kolektiboa.
- Biltegiak eta merkataritza.
- Bulegoak
- Lantegiak.
- Automobil erabilien gordetegia.
- Zerbitzugunea.

Baimenduta dago horiekin erlazioatutako edozein industria edo zerbitzu (bai eta industriako kategorietarako langileak prestatzekoak ere) industrialdean instalatzea eta funtzionaraztea.

Erabilera osagarriak:

Pribatizagarriak diren lur sailetan egiten diren erabilerak dira. Lur sail horiek ezingo dira eraikinetarako edo biltegiatarako erabili, lur sailen erabileretarako ezarritako gehieneko lerrokatzeetatik at baitaude.

Erabilera osagarrietarako zonan, industria sektorearekin zeriakia duten azpiegiturak kontrolatzeko, mantentzeko, transformatzeko edo banatzeko elementuak jar daitezke. Orobat, espaloiak, galzadak eta estalpetik kanpoko aparkaleku pribatuak egiteko erabil daiteke, horrela plangintzaren araudian eskatu bezala 100 m² bakoitzeko gutxienez aparkaleku bat izateko, baldin industrialdeko bideetan egin asmo diren aparkalekuekin tasa horretara iristen ez bada.

Lorategi eta parterreak ere jarri ahal izango dira. Izan ere, kontuan hartzeko neurriak betetzen ez badute ere, landare espezie batzuk landatzeko egokiak izango gero, eta eraikina ederrago bihurtuz gero, jartzeko modukoak izango dira.

Gainera, baimendurik daude erabilera nagusia osatzeko balio duten erabilera osagarriak.

11. artikulua. Ekipamenduen zonetan baimendutako erabilerak

Ekipamenduen zonetako kalifikazio xehekatua kirol, merkataritza eta gizarte ekipamendua da. Hor sartuta daude, berebat, ostalaritzari eta olgetari lotutako establezimendu publikoak, gasolina zerbitzuguneak, irakaskuntzako establezimenduak, gizarte laguntzakoak, osasuneakoak, kulturakoak, administraziokoak, aisialdirako gunea, jolaserakoak eta kirolerakoak. Horietan guztietan, betiere, industrialdeko beharrei erantzuten dietenei emango zaie lehentasuna.

Orobat, baimendurik dago sektorea guztiz hiritartzeko behar diren azpiegitura sareak jartzea.

Baimendurik daude erabilera nagusia osatzeko balio duten erabilera osagarriak.

Ekipamenduaren instalazioak edo eraikinak egiten ez diren bitartean, ordenantza arautzaile hauetan berdeguneetarako zehaztutako erabilerak egin daitezke hor.

12. artikulua. Oinarritzako azpiegituren zonan baimendutako erabilerak

Zona horretan, baimendurik daude industrialdean zerbitzu hauek emateko beharrezko diren instalazioetarako erabilerak: hondakin urak araztea, energiaren hornitzea, argizatzea, urez hornitzea, telefonia, eta gasez hornitzea.

Orobat, sektorea hiritartzeko beharrezkoa den edozein azpiegitura ezarri ahal izango da.

Baimendurik daude erabilera nagusia osatzeko balio duten erabilera osagarriak.

13. artikulua. Berdeguneetan baimendutako erabilerak

Zona horretan, baimendurik dago herritarrek aisialdiko jarduerak egitea eta estalpetik kanpo paseatzea; bai eta sektorea hiritartzeko behar den edozein azpiegitura sare edo elementu jartzea ere.

- B.1. Zonas verdes
- B.2. Sistema viario
- B.3. Cursos de agua

Cada una de estas categorías están delimitadas en el plano O-1 de ordenación.

Artículo 10. Usos permitidos en la Zona de Uso Industrial

Atendiendo a la situación, comunicaciones y reservas próximas, se estima preferente la localización en el Polígono de industrias incluidas en los siguientes sectores:

- Industrial a excepción de industrias químicas u otras que propicien altos índices de contaminación, sean insalubres o peligrosas.

- Garaje colectivo
- Almacén y comercio
- Oficinas
- Talleres
- Depósito de coches usados
- Estación de servicio

Se autoriza la instalación y el funcionamiento en el polígono de todas las industrias y servicios relacionados con las mismas, así como de las de formación de personal para la industria en sus diversas categorías.

Usos complementarios:

Se entiende como tal los que se ubican en la superficie de terreno correspondiente a las parcelas privatizables que deberá mantenerse libre de ocupación por la edificación y/o por las zonas de almacenamiento, por estar situada fuera de las alineaciones máximas establecidas para cada uso de las parcelas.

En esta zona se permite la ubicación de cualquiera de los elementos de control, mantenimiento, transformación o distribución de las infraestructuras que constituyen la urbanización propia del sector Industrial, así como los usos de aceras, calzadas y aparcamientos privados al aire libre, para completar como mínimo, la tasa de un aparcamiento por cada 100 m² de edificación industrial exigida en el Reglamento del Planeamiento y que no quede solucionado con los aparcamientos previstos en los viales del Polígono Industrial.

También podrán desarrollarse los usos de jardines-parterres que aún no cumpliendo con las dimensiones necesarias para su cómputo, si tengan las condiciones apropiadas para la plantación de especies vegetales y sirvan de embellecimiento de la edificación.

Además, se permiten como usos complementarios, aquellos otros que sirven al uso principal.

Artículo 11. Usos permitidos en las Zonas de Equipamientos

La calificación pormenorizada de Zonas de Equipamientos, se refiere a los usos de equipamiento deportivo, comercial y social, comprendiendo además el de establecimientos públicos relacionados con la hostelería y recreativos, estaciones de servicio, docencia, asistencial, sanitario, cultural, administrativos, área destinada al esparcimiento, juegos y practica deportiva. Todos ellos relacionados preferentemente con las necesidades de atención al ámbito del polígono industrial.

Asimismo se podrán ubicar cualquiera de las redes de las infraestructuras precisas para la total urbanización del sector.

Se permiten como usos complementarios aquellos que sirven al uso principal.

En tanto en cuanto no se realicen las instalaciones o edificaciones propias del equipamiento, sus usos podrán ser los definidos para las zonas verdes.

Artículo 12. Usos permitidos en la Zona de Infraestructuras Básicas

En esta zona se permiten los usos correspondientes a los que se derivan de las instalaciones necesarias para dotar al polígono de los servicios de saneamiento, depuración de aguas residuales, suministro de energía, alumbrado, abastecimiento de agua, telefonia y gas.

Igualmente se podrá ubicar en esta zona cualquier infraestructura que sea precisa para la urbanización del sector.

Se permiten como usos complementarios aquellos que sirven al uso principal

Artículo 13. Usos Permitidos en las Zonas Verdes

En esta zona se permiten las actividades de esparcimiento y paseo al aire libre de la población, así como la ubicación de cualquiera de las redes y elementos de las infraestructuras precisas para la urbanización del sector.

Baimendurik daude erabilera nagusia osatzeko balio duten erabilera osagarriak.

14. artikulua. Bide sarearen zonan baimendutako erabilerak

Ibilgailuei eta oinezkoiei alorreko planeko beste zona batzuetara, eta sektorearen mugakide diren zonetara, iristeko modua emateko erabilerak baimendurik daude. Ibilgailuak atari zabalean aparkatzea ere baimenduta dago, bai aurreikusitako bazterretan, bai aparkatzeko egokitutako tokietan.

Zona horretan, orobat, sektorea hiritartzeko behar den edozein azpiegitura sare nahiz elementu ezarri ahal izango da.

15. artikulua. Ur-lasterretan baimendutako erabilerak

Zona horietan, honako testu hauetan jasotako arauak aplikatu beharko dira: Uren Legeko (29/1985 Legea, abuztuaren 2koa) 48. artikulutik 56.era bitartekoetan, eta Jabetza Publiko Hidraulikoaren Arautegiari buruzko Errege Dekretuko (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa) 50. artikulutik 54.era bitartekoetan.

2. sekzioa. Lur-sailkatzeak

16. artikulua. Asparrena-Donemiliagako Industria Sektoreko Alorreko Planean definitutako lur sailak

O-2 planoan zehaztutako lur sailek lur sailen banaketarako proposamen bat azaltzen dute. Lur sailak uanean uneko beharren eta eskakizunen arabera zatitu ahaliko dira, betiere alorreko planeko arauetan ezarritako mugak errespetatuz.

3. sekzioa. Hiritartzeko proiektuak

A. OHAR OROKORRAK

17. artikulua. Definizioa

Hiritartze proiektuak obra proiektuak dira, eta helburu hau dute: alorreko planean jasotako hainbat xedapen gauzatzea. Batez ere bide nahiz azpiegitura sareari eta jabetza zein erabilera publikoa duten eremuak, lorategiak eta berdeguneak egokitzeari buruzko xedapenak dira.

Proiektu horietan, Hirigintza Plangintzako Arautegian (67. artikulutik 70.era bitarte) eta Hiri Antolamenduko Udal Arauetako irizpide orokorretan (gauzatzen den sektoreko ezaugarrietara egokituta) ezarritakoa bete behar da.

18. artikulua. Hiritartzeko proiektuen eremua

Hiritartzeko proiektu bakarra egingo da, azpiegitura guztiak eta jabetza eta erabilera publikokotzat zehaztutako espazio guztiak barne hartuta. Hau da, eremu osoari eragingo dio.

19. artikulua. Alorreko planeko xedapenek dituzten lotesletasuna eta egokitzeko aukerak

Hiritartze proiektuak ezin izango ditu alorreko planeko oinarriko zehaztapen eta aurreikuspenak aldatu.

Hala ere, aurreikuspen horiek obrak gauzatzeko irizpide eta behar teknikoetara egokitzea onartu ahal izango da. Horretarako, hiru baldintza hauek bete behar dira: a) Egokitze hori arrazoitzea. b) Alorreko planean erabilera eta jabetza publikorako lagapen gisa kalifikatutako azalerak ez aldatzea. c) Lurraren edo eraikuntzaren antolamendua eta araubidea ez aldatzea. Azken era horretako aldaketarik izanez gero, alorreko planaren aldatetatzat joko da, eta, beraz, halakotzat izapidetu beharko da, Plangintzako Arautegiko 68. artikuluari jarraituz.

20. artikulua. Agiriak

Hiritartze proiektuak, gutxienez, Plangintzako Arautegiko 69. eta 70. artikuluetan adierazitako dokumentuak izan behar ditu bere baitan; besteak beste, telefono eta gas zerbitzuen sarearenak.

B. Hiritartze proiekturako baldintza teknikoak

21. artikulua. Hiritartze obra guztietarako

Hiritartze obra guztiak, indarrean diren bete beharreko sektore arauari jarraituz gauzatuko dira.

Azpiegitura zerbitzuen sareak banatzeari buruzko O-5 planean adierazitako trazatuak eta neurriak gutxi gorabeherakoak dira. Beraz, horiei funtsezkoak ez diren aldaketak egitea badago, behar bezala arazoituta.

Obra edo zerbitzu mota bakoitza kapitulu berezia izango da (proiektu bereziak ere izan daitezke), hiritartze proiektuaren barruan.

Amezaga errekarri eta haren adarrei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaierzak eta Erreka Ertzak Antolatze Lurraldearen

Se permiten como usos complementarios aquellos que sirven al uso principal

Artículo 14. Usos permitidos en la Zona de la Red Viaria

En esta zona se permiten los usos precisos para cumplir su cometido de dotar de accesibilidad rodada a vehículos y a peatones a otras zonas del Plan Parcial y a terrenos colindantes con el sector, incluido el estacionamiento de vehículos al aire libre, tanto en los arcenes proyectados como en el área específica de aparcamiento.

Igualmente se podrá ubicar en esta zona cualquier red y elemento de infraestructura que sea precisa para la urbanización del sector.

Artículo 15. Usos permitidos en los Cursos de Agua

En estas zonas serán de aplicación los artículos 48 al 56 de la Ley de Aguas 29/1985, de 2 de agosto, y los artículos 50 al 54 del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril sobre el Reglamento Público Hidráulico.

Sección 2ª Parcelaciones

Artículo 16. Parcelas Definidas en el Plan Parcial del sector Industrial de Aspárrena-San Millán

Las parcelas indicadas en el plano O-2, reflejan una propuesta orientativa de distribución de las parcelas. Las parcelas serán divisibles conforme a las necesidades y la demanda que en cada momento pudiera existir, con las limitaciones impuestas por la normativa del Plan Parcial.

Sección 3ª Proyectos de Urbanización

A. GENERALIDADES

Artículo 17. Definición

Los proyectos de Urbanización son proyectos de obras, cuya finalidad es llevar a la práctica las determinaciones contenidas en el Plan Parcial, referidas fundamentalmente a las redes viarias, de infraestructuras y el acondicionamiento de las áreas de uso público; jardines y zonas verdes.

Estos proyectos cumplirán lo establecido en el Reglamento del Planeamiento Urbanístico (artículo 67 al 70) y en los criterios generales de las Normas Subsidiarias Municipales, adaptados a las características del sector que se desarrolla.

Artículo 18. Ámbito de los Proyectos de Urbanización

Se procederá a la redacción de un único proyecto de urbanización, que afecte a la totalidad de las infraestructuras y a los espacios definidos como de dominio y uso público, es decir, que comprenderá la totalidad de su ámbito.

Artículo 19. Vinculación y Posibilidades de Adaptación en relación con las determinaciones del Plan Parcial

El proyecto de Urbanización no podrá modificar las determinaciones y previsiones fundamentales del Plan Parcial.

No obstante, podrá admitirse la adaptación de aquellas previsiones a criterios y necesidades técnicas de ejecución de las obras, siempre que se justifique dicha adaptación y ello no signifique modificación de las superficies calificadas por el Plan Parcial como de cesiones para uso y dominio público, ni alteraciones sobre ordenación y régimen del suelo o de la edificación, adquiriendo en este caso carácter de modificación del Plan Parcial, lo que exigirá previamente su tramitación como tal, de acuerdo con el artículo 68 del Reglamento del Planeamiento.

Artículo 20. Documentación

El proyecto de Urbanización comprenderá como mínimo los documentos indicados en los artículos 69 y 70 del Reglamento del Planeamiento, incluyendo la red de canalización telefónica y gas.

B. Condiciones Técnicas para el Proyecto de Urbanización

Artículo 21. Común a todas las Obras de Urbanización

Todas las obras de urbanización, se ejecutarán de acuerdo con la normativa sectorial vigente de obligado cumplimiento.

Los trazados y dimensionamientos indicados en los planos O-5 de distribución de redes de los distintos servicios de infraestructuras, tienen carácter indicativo, pudiendo sufrir modificaciones de detalle, debidamente justificadas.

Cada clase de obras o servicios, constituirá un capítulo independiente, pudiendo ser proyectos independientes, del proyecto de urbanización.

En referencia al arroyo Amézaga y afluentes, las actividades a desarrollar dentro de las franjas de protección descritas en el Plan

Arloko Planean (Eusko Jaurlaritzaren 455/1999 Dekretua, abenduaren 18koa) zehaztutako lur zerrenda babestuetan egiten diren jarduerak, betiere, arau horretan xedatutakoa bete beharko dute. Lurraldearen Arloko Planean araututa ez dauden gaietan, arau hauei jarraitu beharko zaie: Uren Legeari (6. eta 22. artikulua); Jabetza Publiko Hidraulikoaren Arautegiko seigarren sekzioari; eta lurralde antolamenduko gida lerroak (DOT) onartu dituen dekretuko (Eusko Jaurlaritzaren 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa) 9. artikuluari.

Arabako errepideei buruzko foru araua (20/1990 Foru Araua, ekainaren 25ekoa) bete beharko da A-3020 errepideen atxikipen zonetan; eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Legea (1990eko irailekoa) aplikatuko da Madril-Irun trenbideko atxikipen zonetan.

Gainera, aplikatu beharrekoa izango da Irisgarritasuna Sustatzeko Legea (Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legea, abenduaren 4koa).

22. artikulua. Berdeguneei buruzko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

Eraikinen arteko gune libreetan, lurra behar bezala trataturik dago, bere erabilerari egokitzeko.

Oro har, zona zolatuen barruan ez dauden gainerako gune libreak (kaleak, pasealekuak, plazak, aparkalekuak, espaloiak eta abar) bankuak eta zuhaitzak dituzten parke eta lorategizat hartuko dira, edo, bestela, atsedenerako eta aisialdirako toki irekitzat.

Zuhaitzak landatzeko, beharrezkoa izango da leku horretan zuhaitzak egoki eta erabat garatzeko behar besteko tokia izatea.

Lehenetsuna izango dute tokian tokiko zuhaitzek. Edonola ere, jarri behar diren lekuko klima, edafologia eta ekologia hartuko dira kontuan.

Zuhaitzek aireko hariteriari eragitea saihestu behar da. Horren arriskua dagoen tokietan, garapen ertaineko zuhaixkak erabil daitezke.

23. artikulua. Ur-lasterrei buruzko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

Ur-lasterrek dauden espazioetan egiten den jarduketa oro, ur-lasterren funtzionamendu ona mantentzeko eta, egoera onean mantenduz, urbazterrek babesteko izango da.

24. artikulua. Bide sareari buruzko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

Bide sareari buruzko baldintza konkretuak, hiritartze proiektu egokian xedatutakoak izango dira. Alorreko planean jasotako zehaztapenak hartuko dira oinarri.

Bideetako zoladuren proiekturako, kalkulurako eta neurrietarako, indarrean diren sektore arauak aplikatuko dira. Gutxienez ere, T2 zirkulazio mota edo kategoriat hartuko da (Errepideen Arautegiko 6.I/IC araua).

Zoladura obrak bi etapatan egin ahalko dira. Lehenengoa eraikinak eraikitzeke aldiz baina ez da izango, eta ibilgailuen zirkulaziorako behin-behineko geruza jarriko da. Bigarren etapari, behin betiko zoladura jarriko da aurreko zoru horren gainean, zoru horretan izandako kalteak konpondu eta gero.

Obrak berak egin aurretik, zoladurak estalitako zona guztien landare lurrezko goiko geruza kendu eta gorde egingo da (bai bide sarean, bai bestelako eremuetan). Gero, landare lur hori lorategi eta berdeguneetan erabili ahal izango da.

25. artikulua. Sare hauei buruzko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak: edateko uraz hornitzeko, ureztatzeko eta suteetako ur hartuneetarako sareei buruzkoarenak, alegia.

Kontuan hartuko dira baldintza hauek: a) Beste instalazio batzuekiko bereizketakoak. b) NTE-IFA/1975 delakoan ezarritako baldintza teknikoak. c) Industria Ministerioak 1975eko abenduaren 9an ezarritakoak. d) Gobernu Presidentetzako martxoaren 15eko 928/1979 Dekretukoak. e) Indarrean diren gainerako arauetakoak.

Gutxienezko hornikuntzak udalek ezarritakoak izango dira. Sareko tokirik txarrean, gutxienezko presioa 1 atmosferakoa izango da.

Uraren edateko egokitasuna ziurtatu beharko da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren irizpideei jarraituz. Osasun baldintzen aldetik, ur bilketako guneak behar bezala kontrolatzen direla frogatu beharko da. Lorategi eta berdegune guztietan, bai eta halakotzat tratatutako eremuetan ere, ureztatzea bermatzeko behar besteko instalazioak jarriko dira, eguneroko kontsumoa 12 m³/ha-koa izango

Territorial Sectorial (P.T.S.) de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V. (Decreto del Gobierno Vasco 455/1999 de 118 de Diciembre), estarán sujetas a lo que en la referida norma se determine. En lo no contemplado por el P.T.S., regirá la Ley de aguas (artículo 6 y 22) y Sección Sexta del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, así como al contenido y aplicación en el artículo 9 del Decreto del Gobierno Vasco 28/1997 de 11 de Febrero por el que se aprueban las D.O.T.

Deberá respetarse la Norma Foral 20/1990, de 25 de Junio, de Carreteras del T.H. de Álava, en las zonas de afección de la carretera A-3020 y se aplicará la Ley de Ordenación de los Transportes Terrestres de Septiembre de 1990, en las zonas de afección del ferrocarril, línea Madrid-Irún.

Asimismo será de aplicación la Ley 20/1997, del Gobierno Vasco sobre Promoción de la Accesibilidad.

Artículo 22. Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización de las Zonas Verdes.

En los espacios libres entre edificios, el suelo estará debidamente tratado en adecuación a su uso.

En general, los espacios libres resultantes, públicos o privados, que no comprendan zona pavimentada (calles, paseos, plazas, aparcamientos, aceras, etc.) se tratarán con el carácter de parques y jardines con bancos y plantaciones de arbolado y zonas libres para el descanso y esparcimiento.

Las plantaciones de arbolado se efectuarán con el espacio necesario para garantizar su perfecto y total desarrollo.

Se adoptarán preferentemente especies autóctonas de arbolado, teniendo en cuenta para su elección, los factores climáticos, edáficos y ecológicos del lugar de actuación.

Se evitará la afección del arbolado al tendido eléctrico aéreo, pudiendo recurrirse en esas zonas a arbustos de mediano desarrollo.

Artículo 23. Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización de los Cursos de Agua.

Toda actuación en los espacios ocupados por cursos de agua estará destinada a mantener el buen funcionamiento del cauce y a la protección de las riberas, conservándolas en buen estado.

Artículo 24. Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización de la Red Viaria.

Las condiciones concretas respecto a la red viaria, serán las que determine el oportuno Proyecto de Urbanización sobre la base de las especificaciones contenidas en el Plan Parcial.

Para el proyecto, cálculo y dimensionamiento de la pavimentación de los viales, será de aplicación la normativa sectorial vigente, considerándose como mínimo un tipo o categoría de tráfico T2 (Instrucción de Carreteras Norma 6.I/IC).

Las obras de pavimentación se podrán realizar en dos etapas. La primera serviría solamente para el periodo de construcción de los edificios, comprendiendo una capa de rodadura provisional. En la segunda se ejecutaría el pavimento definitivo sobre el firme antes descrito previa reparación del deterioro que pudiera haberse producido en el mismo.

Previamente a la ejecución de las obras propiamente dichas, se procederá a la retirada y acopio de la capa superior de tierra vegetal, de todas las zonas ocupadas por pavimento (tanto en red viaria como en otras áreas), para su aprovechamiento futuro en áreas de Jardinería y Zonas Verdes.

Artículo 25. Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización de las redes de abastecimiento de agua potable, riego e hidrantes para incendios.

Se deberán tener en cuenta las condiciones de separación a otras instalaciones y todas aquellas de tipo técnico establecidas en la NTE-IFA/1975; las del Ministerio de Industria de 9 de diciembre de 1975; el Decreto 928/1979 de 15 de marzo de la Presidencia del Gobierno, y demás normativa vigente.

Las dotaciones mínimas serán las establecidas por los ayuntamientos. La presión mínima en el punto más desfavorable de la red será de 1 atmósfera.

Se deberá justificar la potabilidad del agua, de acuerdo con los criterios del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco. Deberá justificarse el debido control de las captaciones en materia sanitaria. En todos los Jardines y Zonas Verdes, así como en las áreas tratadas como tales, se establecerán las instalaciones suficientes para garantizar el riego, estimándose un consumo diario de 12 m³/hect.

dela kalkulatu. Ur hartuneak ipiniko dira, haien artean ura eremu osora iristeko moduan.

Suteen kontrako babesari buruzko NBE-CPI-96 eta NTE-IFR arauak kontuan hartuko dira. Nahitaez bete beharrekoak dira.

26. artikulua. Hondakin urak saneatu eta ebakuatzeari buruzko hiritartze proiektuaren baldintza teknikoak.

NTE-ISA/1973 arau teknologikoa eta indarrean diren gainerako arauak izango dira aplikagarri.

Sareen sekzioen kalkulua eta sareen diseinua egitean, urari hone-lako abiadura eragitea izango da helburu: sedimentazioak gertatzea eragozteko eta ubideak higatuko dituzten ur lasterregiak izatea saihesteko moduko abiadura.

Erregistro putzuak jarriko dira. Batetik bestera, gehienez ere 50 metroko tartea izango da, behar bezala arrazoitutako kasu berezietan izan ezik.

Hainbat eraikinetako hondakin urak bideratzen dituzten estolden buruetan, deskarga ganberak jarriko dira, garbiketarako. Ganbera horiek, gutxi gorabehera, 1 m³-ko edukiera izango dute. Hala ere, horren orde, beste aukera tekniko egoki bat ere jar daiteke.

Han jartzen den araztegiak, industrialde osorako behar adinako ahalmena izango du.

Araztegia instalatzeko kostuak industrialdea hiritartzeko gastu orokorretan sartuko dira. Mantentze kostuak, berriz, arazi beharreko ur hornituaren proportzioan kobratuko dira. Hala dagokionean, kalkulua egiteko formula ezarriko da.

Biltzaile bakoitzean, emari neurgailuak eta laginak automatikoki hartzeko neurgailuak ezarri ahal izango dira. Neurgailu horiek industrialdeko agintariak bakarrik erabiltzeko modukoak izango dira.

Hondakin urak isurtzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Industrialdeko industria erakunde bakoitzak isurtzen dituen hondakin urei buruzko adierazpena egin beharko du. Adierazpen horretan oinarriturik, jardueraren ondorioz egiten dituen hondakin urak sare orokorrera isurtzeko baimena emango zaio.

Jardueraren hondakin urtzat jotzen dira kutsatuta egon daitezkeen inguruetakoa drainatzeak.

- Kutsatu gabe daudela aurreikusten zaien inguruetakoa drainatze-hustubideetan, ez da baimenik beharko hondakin urak industrialdeko sarera isurtzeko.

- Jarduera bakoitzak hondakin uren konexio bakarra izan beharko du industrialdeko sarearekin. Konexio horretan, "kontrol arketa" izeneko arketa jarriko da.

- Industrialdeko sarerako isurketek 2. taulan adierazitako gehieneko ezaugarriak eta baldintzak bete beharko dituzte. Ura osasun zerbitzuetarako bakarrik erabiltzen duten jardueren isuriek 2. taulako mugak betetzen dituztela jotzen da.

- Dena dela, 2. taulan xedatutako ezaugarriren bat gainditzea ere onartuko da, bi baldintza hauek betetzen badira: a) Industria jardueraren titularrak xehetasunezko estudioa aurkeztea, datu hauek adierazita: bolumenak, emariak, karga kutsatzaileak, isurketa orduak, eta abar. b) Ondorengo estudio teknikoetan, isurketa horiek araztegiaren eraginkortasuna arriskuan jarri gabe onar daitezkeela egiaztatzea.

- Isurkian kontzentrazioa mugatzen zaien parametroen zerrendan kutsatzaile ohikoenak daude jasota (2. taula). Beraz, ez dira kutsatzaile guzti-guztiak ageri. Esandako mugen zerrendan ageri ez diren kutsatzaileak sortzen dituzten jarduerak, jakina, kutsatzaile horien berri eman beharko dute. Haien isurkietan doan kopurua eta kontzentrazioa adierazi beharko dute, aginpidea duten teknikoari isurketari dagokion muga zehatz dezaten.

- Erabat debekatuta dago honelako hondakin urak isurtzea: olioak, olio-emultsioak, taladrinak, metalen azala tratatzeko edonolako bainuen hondakinak, margotzeko kabinetako hobia hustean esekiduran geratzen diren margoak, eta abar.

- Baimendutako isurketaren ezaugarriak (hala nola isurketaren bolumena, emaririk handiena, kalitatea...) aldatzeko, idatziz eskatu beharko zaio baimena industrialdeko agintaritzari. Erakunde horrek, azterketa egin ondoren, isurketa baimeneko baldintza berriak zehaztuko ditu.

- Isurketa bolumentzat hartzen da kontsumitzen den ur bolumenaren % 100, benetako bolumena egiaztatzen duten kalkuluak aurkeztu ezik.

colocándose bocas de riego de forma que se garantice la cobertura del toda el área.

Se tendrán en cuenta las normas NTE-IFR y la NBE-CPI-96 de protección contra incendios, de obligatorio cumplimiento.

Artículo 26. Condiciones Técnicas del Proyecto de Urbanización del Saneamiento y evacuación de Aguas Residuales

Será de aplicación la Norma Tecnológica NTE-ISA/1973 y demás normativa vigente.

El cálculo de secciones y diseño de las redes será tal que garantizará una velocidad adecuada en evitación de sedimentaciones, así como de velocidades que provoquen excesiva erosión de los conductos.

Se dispondrán pozos de registro con distancias máximas de 50 m, salvo casos puntuales debidamente justificados.

En las cabeceras de alcantarillas que sirvan para desagüe de vertidos de varios edificios se dispondrán cámaras de descarga para limpieza con una capacidad aproximada de 1 m³, o solución técnica alternativa adecuada.

La estación depuradora que se establezca tendrá capacidad para la totalidad del Polígono.

El coste de instalación de dicha estación se cargará a los gastos generales de la Urbanización del polígono, y el coste de mantenimiento se repercutirá proporcionalmente al caudal de agua a depurar suministrado. Oportunamente se establecerá la fórmula conveniente para efectuar el cálculo.

En cada uno de los colectores se podrán establecer medidores de caudal y toma de muestras automáticas accesibles únicamente a la Autoridad del Polígono.

Para el vertido se establecen las siguientes condiciones:

- Cada entidad industrial del Polígono deberá realizar una declaración de vertido y en base a la misma, se le dará una autorización para verter en la red comunal las aguas residuales que genere como consecuencia de su actividad.

Se consideran como vertidos de la actividad los drenajes de áreas que potencialmente puedan estar contaminadas.

- Los desagües de drenaje de áreas potencialmente no contaminadas no requerirán autorización de vertido en la red del Polígono.

- Cada actividad deberá tener una única conexión de las aguas residuales a la red del Polígono. En dicha conexión se situará la arqueta que se denomina "Arqueta de Control".

- Los vertidos a la red del Polígono deberán cumplir las condiciones y características máximas que se indican en la tabla 2. Se entiende que los vertidos de aquellas actividades que utilizan el agua sólo para los servicios sanitarios cumplen las limitaciones de la tabla número 2.

